

DONOSTIA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO PLANA, DONOSTIA_KAEP

1. AGIRIA: DIAGNOSTIKOA



DATA: 2017ko MARTXOA



KONTRATATUTAKO ENPRESA:

Tecnalia Research & Innovation, Enea Iraunkortasunerako Autore-aholkularitzarekin eta Azti Tecnaliarekin lankidetzan.

AGIRIAREN IDAZLEAK:

Efren Feliu (Tecnalia Research & Innovation)

Beñat Abajo (Tecnalia Research & Innovation)

Maddalen Mendizabal (Tecnalia Research & Innovation)

Laura Gutierrez (Tecnalia Research & Innovation)

Ainhoa Gea (Enea Iraunkortasunerako Auto-aholkularitza)

Ana Lopez (Enea Iraunkortasunerako Auto-aholkularitza)

Guillem Chust (AZTI Tecnalia)

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEAK UDALEAN:

Josu Benaito (Ingurumena)

Ana Juaristi (Ingurumen-osasuna eta Jasangarritasuna)

UDALEKO PARTE-HARTZAILEAK:

Tere	Barrenetxea	Gizarte Ekintza
Fernando	Perez	Ur-ustiakuntza eta Saneamendua
Imanol	Andonegui	Suteen Itzaltzea eta Salbamenduak, Suhiltzaileak
Ana	Aizpuru	Donostiako Sustapena SA
Pilar	Braceras	Lurralde-informazioa eta Kartografia
Ibon	Ramos	Lurralde-informazioa eta Kartografia
Juan	Ortiz de Zarate	Mantentze-lanak eta Hiri-zerbitzuak
Kepa	Korta	Plan Estrategikoa
Agustín	Egaña	Proiektuak eta Obrak
Alfonso	Vazquez	Proiektuak eta Obrak
Juan Carlos	Cuevas	Hirigintza Jasangarria
Juan Mari	Etxeberria	Hirigintza Jasangarria

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	1
2.	HELBURUAK.....	2
3.	DONOSTIAKO KLIMAREN JOERA HISTORIKOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROIEKZIOAK.....	3
3.1	TESTUINGURU KLIMATIKOA	3
3.2	DATUAK ETA METODOAK	3
3.2.1	Joera historikoen analisia	4
3.2.2	Indize klimatikoaren kalkulua: historikoak eta etorkizunekoak	5
3.3	EMAITZAK	8
3.3.1	Joera historikoen analisia (1929-2015)	8
3.3.1.1	Urteko gehieneko eta gutxieneko tenperatura.....	8
3.3.1.2	Urteko prezipitazioa.....	10
3.3.1.3	Urteko hezetasuna.....	11
3.3.2	Indize klimatikoaren kalkulua	11
3.3.2.1	Hotz-muturrak	11
3.3.2.2	Bero-muturrak	15
3.3.2.3	Batez besteko tenperatura	20
3.3.2.4	Prezipitazio-muturrak	21
3.3.2.5	Batez besteko prezipitazioa	23
3.4	ONDORIOAK.....	24
4.	DONOSTIA HIRIAREN KOSTAN KLIMA ALDAKETAK DITUEN EBIDENTZIEN ETA INPAKTUEN EBALUAZIOA	25
4.1	SARRERA	25
4.2	METODOLOGIA	25
4.2.1	Klima aldaketaren ebidentzien ebaluazioa kostan.....	25
4.2.2	Klima aldaketaren ondorioz Donostiako kostan sor daitezkeen arriskuak eta zaugarritasunak.....	25
4.2.2.1	Itsasmailaren eskualdeko agertokiaren definizioa.....	25
4.2.2.2	Goraguneen Eredu Digitalak (GED) prestatzea eta balioztatzea ..	26
4.2.2.3	Uholde-arriskua, itsasmailaren igoeragatik	26
4.2.2.4	Uholde-arriskua, muturreko olatuengatik eta itsasmailaren igoeragatik	27

4.3	KLIMA ALDAKETAREN EBIDENTZIEN EBALUAZIOA KOSTAN	27
4.3.1	Itsasoaren tenperatura.....	27
4.3.2	Batez besteko itsasmaila	28
4.4	KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOZ DONOSTIAKO KOSTAN SOR DAITEZKEEN ARRISKUEN ETA ZAURGARRITASUNEN EBALUAZIOA	29
4.4.1	Uholde-arriskua, itsasmailaren igoeragatik.....	29
4.4.2	Uholde-arriskua, muturreko olatuengatik eta itsasmailaren igoeragatik.....	29
5.	ZAURGARRITASUNAREN ETA ARRISKUAREN EBALUAZIOA UDALERRIAZ AZPIKO MAILAN	30
5.1	KONTZEPTUEN ESPARRUA.....	31
5.2	METODOLOGIA	31
5.2.1	Arazo-zuhaitzak egitea eta inpaktu-kateak identifikatzea	32
5.2.2	Datu-ereduaren definizioa	33
5.2.3	Datuak biltzea, prestatzea eta sortzea	34
5.2.4	Datuen azterketa estatistikoa	35
5.2.5	Adierazleei duten pisua esleitzea eta indize konposatuak sortzea	36
5.2.6	Irteera kartografikoak eta grafikoak sortzea	36
5.3	EMAITZAK	37
5.3.1	Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean.....	37
5.3.2	Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	40
5.3.3	Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	43
5.3.4	Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean	47
5.3.5	Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean	50
5.4	ONDORIOAK.....	53
6.	ESTRATEGIAREN JARDUERA OSAGARRIAK	55
6.1	BARNE PARTE-HARTZEA, UDALEKO TEKNIKARIEKIN	55
6.2	HERRITARREN PARTE-HARTZEA.....	57
6.2.1	Argazki-lehiaketa, Twitter sare sozialaren bitartez	57
6.2.2	Argazki-erakusketa	57
7.	BIBLIOGRAFIA	59
	ERANSKINAK	62
I.	Eranskina. Klimaren joera historikoak eta etorkizunerako proiektzioak	63
II.	Eranskina. Klima aldaketarekin lotutako terminoen glosarioa	64

III. Eranskina. Inpaktu-katerako indize agregatu handiko analisi-unitateak.....	65
Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean	65
Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.....	69
Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	73
Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunarengan	77
Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean	82
IV. Eranskina. Inpaktu-kate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak.....	86
Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean	86
Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.....	92
Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	98
Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunarengan	105
Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean	114
V. Eranskina. Liburutegi kartografikoa.....	123
Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean	124
Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.....	129
Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	134
Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean.....	139
Temperaturaren igoeraren inpaktua biodibertsitatean	144

1. SARRERA

Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldearen azkeneko Ebaluazio-txostenak (IPCC, 2014) are irmotasun handiagoz egiaztatzen du aurreko txostenetan ere esan izan dena, batez ere gizakiaren ekintzaren ondorio dela azkeneko hamarraldietan gertatutako planetaren berotzea. Ohartarazpen horri ez diote bizkar eman nazioarteko organismoek, Europako Batzordeak berak edo Ingurumeneko Europako Agentziak esaterako; organismo horiek kezka adierazi dute Europako eskualdeek fenomeno horren mehatxua jasango dutela, eta uste dute haien etorkizuneko plangintzen funtsezko alderdia izan behar duela klima aldaketak.

Oro har, klima aldaketaren aurkako esfortzuak haren eraginak arintzearen esparruan ardaztu ziren hasieran, Berotegi-efektuko Gasen (BEG) isuriak murrizteko aurrerapenak lortzeko helburuz. Hala ere, klima aldaketaren inpaktuak saihestezinak direla dioten zientziaren egiaztapenen ondorioz, eta nazioartean hori onartu delarik, azkeneko urteotan bultzada handia ematen ari zaie aldaketa horretara egokitzeko politikei, eta klima aldaketaren eraginaren aurrean erantzuteko plangintzei. European, politika horiek gauzatu dira, besteak beste, 2013an argitaratutako Klima Aldaketara Egokitzeko Europar Estrategiaren eta Alkateak Egokitzapenaren Alde ekimenaren bitartez (*Mayors Adapt*¹).

Udalerriek zeregin garrantzitsua dute, jakina; izan ere, biztanleria, jarduera eta eskumen kontzentrazio handia izanik, tokiko esparruan sortzen dira isuri gehienak, eta berotze globalaren eragin ugari jasango dute. Beraz, beharrezkoa da esparru horretan lehenbailehen abian jartzea klima aldaketarekin lotutako politikak.

Alkateak Egokitzapenaren Alde ekimenaren bitartez, hain zuzen ere, tokiko administrazioen konpromisoa lortu nahi da, Europar Batasunaren egokitzapenerako estrategiaren helburu orokorra lortzen eta klima aldaketaren aurrean Europa indartsuago bat sortzen laguntzeko. Bereziki interesgarria da gobernantza egokitzaileko ekintzak bultzatzea tokiko mailan; bi alderdi zehatz nabarmen ditzakegu:

- Klima aldaketa fenomeno globala den arren, tokiko mailan gerta daitezke haren inpaktuak. Klima aldaketaren aurreko zaurgarritasuna udalerrri bakoitzaren ezaugarri fisiko, biologiko, ekologiko, ekonomiko, sozial eta abarren arabera da; beraz, funtsezkoa da tokiko gobernuek klima-arriskuak identifikatzeko eta baloratzeko duten eginkizuna.
- Dagoen eskumen-banaketaaren ondorioz, udalerrriek zaurgarritasuna murrizteko ahalmen egokitzaileak dituzte esparru benetan garrantzitsuetan; hala nola lurraldearen antolamenduan, azpiegiturretan, etab.

Toki mailako ekintzak duen garrantziaren jakitun, Donostiak 2008an onartu zuen Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko lehenengo Plana; klima aldaketaren eraginak arintzeko zein aldaketa horretara egokitzeko lan egin beharra zegoela jasotzen zuen dagoeneko plan hark. 2010ean, Alkateen Itunarekin bat egin zuen; horrela, ezarritako konpromiso guztiak bete zituen, isurpenen inbentarioa eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plana (EJEP) eginda. EJEP planetik abiatuta, eta ondoren plan hori Donostia Hiri Berdea 2030 Ingurumen Estrategian indartuta, Donostiak 2030. urterako CO₂ isurpenak 2007koekiko % 30 murrizteko konpromisoa hartu du. Horrekin guztiarekin, Udalak indartu eta ziurtatu egin du Klima aldaketa arintzearen arloko lanerako bidea.

¹ <http://mayors-adapt.eu/>

Klima aldaketara egokitzeko ildoan, eta ekimen metodologikoak oraindik hasiberriak diren arren, Donostiak Klima aldaketara egokitzeko udal programak egiteko gidaren (Ihobe, 2010) jatorri izan zen proiektu berritzaile batean parte hartu zuen 2010ean.

Klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko esparruetan aurretiaz egindako ibilbide horren ondorioz, Donostia da ICLEI elkarteak C40, ICLEI eta UCLG munduko hirien sareak lider dituen *Compact of Mayors*² ekimena betetzeagatik saritutako euskal udalerri gutxienetako bat.

2016an, Donostiaren Egokitzapenerako Batzorde Teknikoa sortu zen; batzorde horretan parte hartzen dute sail eta arlo hauek: Ingurumena; Proiektuak eta Obrak; Hirigintza Jasangarria; Prebentzioa, Suteen itzaltzea eta Salbamendua; Mantentze-lanak eta Hiri-zerbitzuak; Sustapena; Gizarte Ongizatea; eta Plan Estrategikoa. Batzordearen eginkizuna da udalerria klima aldaketara egokitzeko estrategiaren garapenean parte hartzea, besteak beste, honako jardueren bitartez: toki-mailako zaurgarritasunari eta arriskuei buruzko diagnostikoa gainbegiratzea, eta horixe da, hain zuzen ere, txosten honek jasotzen duena; edo klima aldaketatik eratorritako arriskuak murrizteko etorkizuneko erantzun-ekintzak eta -mekanismoak sustatzea.

2. HELBURUAK

Txosten honen helburu nagusia da Donostia udalerrian egin den klima aldaketaren aurreko zaurgarritasunaren eta arriskuen diagnostikoaren emaitzak jasotzea.

Diagnostiko hau funtsezkoa da jakiteko nola eragin diezaieketen klimari dagozkien mehatxu nagusiek Donostia udalerriari eta, aldi berean, toki-mailan erantzuteko politika eraginkorrak ezartzerakoan arreta berezia eskaini beharko litzaikeen lehentasunezko ekintza-esparruak identifikatzeko.

Lau multzo handi ditu agiriak:

1. Multzo horietako lehenak Donostiako klimaren joera historikoak aztertzen ditu, Igeldoko estazio meteorologikoko 1929 eta 2015. urteen arteko tenperatura, prezipitazio- eta hezetasun-aldagaien datuen azterketatik abiatuta. Tenperaturari eta prezipitazioari dagozkion isurpen-agertoki batzuetarako etorkizuneko proiektzioak ere aztertzen ditu. Halaber, eskuratutako indize klimatiko batzuk jasotzen ditu, historikoak zein etorkizunekoak: hotz-muturrak, bero-muturrak, batez besteko tenperatura, prezipitazio-muturrak eta batez besteko prezipitazioa.
2. Bigarren zatia da Donostia hiriaren kostan klima aldaketak dituen ebidentzien eta inpaktuen ebaluazioari buruzkoa. Hor sartzen dira itsasoaren tenperaturari eta batez besteko itsasmailari dagozkien ebidentziak, eta klima aldaketak –50 urteko epemugarekin– etorkizunean izan ditzakeen inpaktuen ebaluazioa; hau da, itsasmaila igotzearen ondoriozko uholde-arriskua eta muturreko olatuen eta itsasmailaren igoeraren konbinazioagatik uholde-arriskua.
3. Hirugarren zatia udalerriaz azpiko zaurgarritasunaren eta arriskuen analisiari dagokio, auzoaz gairik xehetasun espazialarekin. Zati horretan, aurreikusitako mehatxu klimatikoekiko udalerriaren egoera testuinguruan jarri eta, era horretan, arazo-zuhaitzen bitartez, alde aurretik klima aldaketaren ondorioz toki-mailan gerta daitezkeen inpaktuak eta eraginak identifikatzeaz gain, Donostia udalerrirako, gaur

² <https://www.compactofmayors.org/>

egun edo etorkizunean, garrantzia edo interes handia duten inpaktu-kate batzuei buruz egindako analisien emaitzak erakusten dira. Honako hauek dira, hain zuzen ere: olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean; ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean; euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean; bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean; eta tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean. Analisi horretan, taula, grafiko eta mapa ugari jasotzen da, lagungarri direnak emaitzak tokiko testuinguru geografiko batean ulertzeko eta udalerrian definitutako 108 analisi-unitateen arteko alderaketa egiteko.

4. Azkeneko zatiak orain arte egindako jarduera osagarri batzuk jasotzen ditu; besteak beste, tailer tekniko batzuk egin dira Donostiaren Egokitzapenerako Batzorde Teknikoarekin lankidetzan, eta herritarrenganako komunikazioa eta haien parte-hartzea landu dira sare sozialetatik sustatutako ekimenen bitartez.

3. DONOSTIAKO KLIMAREN JOERA HISTORIKOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROIEKZIOAK

3.1 TESTUINGURU KLIMATIKOA


Donostia udalerriak, itsasoarekiko gertutasunagatik, klima epel ozeanikoa du; klima horren ezaugarri nagusiak dira tenperatura leunak, hezetasun erlatibo handia, hodeien maiztasuna eta urte osoan modu erregularrean banatutako euri kopuru handiak (Sola, A., 2013).

Penintsulako iparraldeko zonako fronte-egoera ugari eta jarraitu samarren eraginez, hainbat egunez jarraian kateatzen dira egun euritsuak. Horregatik, Euskadiko prezipitazioen ezaugarri nagusia da euri horiek iraunkorrak izan direla.

3.2 DATUAK ETA METODOAK

1929. eta 2015. urteen arteko denbora-tarteko tenperatura, prezipitazio eta hezetasun aldagaien azterketatik abiatuta egin da joera historikoen analisia. Igeldoko estazio meteorologikoko datuak dira; datu horiek eskuragarri daude EUROPEAN CLIMATE ASSESSMENT & DATASET (ECA&D) (Klein Tank, A.M.G. et al., 2002) datu-basean.

Bestalde, tenperaturaren eta prezipitazioen etorkizunerako proiektzioak ere aztertu dira. Datuak –KLIMATEK proiektutik eskuratu dira– Donostiako kliman eragina izan dezaketen lau laukietatik atera dira ([Grids 74, 75, 77 eta 78](#)).



1. Irudia Tenperaturaren eta prezipitazioen etorkizuneko proiektzioen azterketarako aukeratutako laukiak.

Joera historikoak aztertu dira, eta indize klimatiko historikoak eta etorkizunekoak kalkulatu dira.

3.2.1 Joera historikoen analisia

Atal honetan aztertzen da Igeldoko estazioko aldagai meteorologikoen denborazko serieek goranzko joera al duten, beheranzkoa edo, aitzitik, ez duten joera esanguratsurik. Seriearen malda eta estatistikaren esanahia ematen da, hainbat testetan oinarrituta. Datuen independentzia handiagoa lortzeko, aldagaien urteko seriea analizatu da (Santos, 2011).

Emitza sendagoak lortzeko helburuz egindako testak Klimaren joera historikoak eta etorkizunerako proiektzioak deritzon Eranskineko [A.1 Taulan](#) daude laburbilduta. Horien artean, test parametrikokoak eta ez-parametrikokoak daude.

Alde batetik, test parametrikokoak datu-serieen eta hutsegiteen (joeraren desbideratzeak) banaketa normala hartzen dute beren gain. Gainera, datuetan gertatutako aldaketa kuantifikatzen dute, hau da, joeraren gradientea. Test mota horiek ez-parametrikokoak baino baldintzatzaile gehiago dituzten arren, oro har sendagoak dira.

Bestalde, test ez-parametrikokoak malguagoak dira, eta joeran gertatzen diren aldaketak antzematen dituzte, nahiz eta ez dituzten kuantifikatzen. Ohikoa da datu hidrologikoen serieen azterketetan erabiltzea, datu horiek gutxitan izaten baitute banaketa normala.

3.2.2 Indize klimatikoaren kalkulua: historikoak eta etorkizunekoak

Oro har, klima aldaketa tenperatura- eta prezipitazio-aldaketen arabera deskribatzen da, baina klima aldaketarekin lotutako kostu sozio-ekonomiko gehienak muturreko tenperatura eta prezipitazioetatik eratorritako muturreko gertaeren maiztasunean eta laztasunean gertatutako aldaketetatik etortzen dira. Gertaera horren adibide da 80ko hamarraldiaz geroztik mundu osoan izan diren gertaeren zerrenda: Katrina urakana (2005); Errusiako bero-bolada (2010); Pakistaneko inoizko uholderik handienak (2010); Kanadako azkeneko 30 urteetako urterik beroena (2010); 2011, Australiako hego-mendebaldeko urterik lehorrena eta Amerikako Estatu Batuetako historiako bigarren udarik lehorrena, etab. Horrela, sortzen den galdera bat da berotze globala klima muturrekoagoa eragiten ari ote den³.

Beraz, beharrezkoa da etorkizuneko baldintzen gaineko ziurgabetasuna klima aldaketaren eta muturreko klimaren testuinguruan ulertzea. Oro har, klima-ereduen eta teknika estatistikoen egikaritzearen emaitzen bitartez aztertzen dira gertaera klimatikoak eta muturreko tenperaturak estandarizatutako indize klimatikoaren bitartez.

STARDEX⁴ proiektuaren helburua izan da mutur horien (muturreko tenperaturak, bero-boladak, etab.) esperotako aldaketak aztertzea, maiztasunari zein intentsitateari dagokienez. Sortutako agertokiak etorkizuneko planifikazioetarako erabiltzen dira; hala nola, ur-baliabideak, osasun publikoa, ureztatzea, eraikuntza etab. kudeatzeko, eta lorpen nagusia da, hain zuzen ere, muturreko klima aldaketei buruzko informazioa ematea. Iraganean, gaur eta etorkizunean gertatutako eta auresandako informazio horrek gizakiaren osasunerako arriskuak irudikatzen ditu eta, zehazki, gehienezko tenperaturek udan duten arriskua⁵⁶.

Jarraian, aztertutako adierazleak eta adierazle horiek zein taldetan sartzen diren jasotzen da.

Hotz-muturrak

- Izotz-egunak (FD TN < 0 °C, ID TX < 0 °C)
- Eguneko gehienezko tenperaturaren gutxienekoa, eta eguneko gutxieneko tenperaturaren gutxienekoa (TXn, TNn)
- Gau hotzen kopurua (TN10p)

Bero-muturrak

- 25 °C-tik gorako gehienezko tenperatura izan duen egun kopurua (SU25)
- 20 °C-tik gorako gutxieneko tenperatura izan duen egun kopurua (TR)
- Eguneko gehienezko tenperaturaren gehienezkoa, eta eguneko gutxieneko tenperaturaren gehienezkoa (TXx, TNx)
- 90 pertzentiletik beherako gehienezko tenperatura izan duen egun kopurua (TX90p)
- Bero-bolada kopurua (HWN)

Batez besteko tenperatura

- Eguneko batez besteko tenperatura (TG)
- Eguneko tenperatura-tartea (DTR)

³ <http://www.c2es.org/publications/extreme-weather-and-climate-change>

⁴ <http://www.cru.uea.ac.uk/projects/stardex/summary.htm>

⁵ González-Aparicio, I. & Hidalgo, J. Dynamically based future daily and seasonal temperature scenarios analysis for the Northern Iberian Peninsula. International Journal of Climatology, 2011, Vol. DOI: 10.1002/joc.2397

⁶ Hewitt, C.D. (2005) ENSEMBLES – providing ensemble-based predictions of climate changes and their impacts. Parliament Magazine, 11 July, p. 57.

Prezipitazio-muturrak

- Lehortearen adierazleak:
 - Euririk gabeko elkarren segidako egun kopurua (CDD)
- Prezipitazio bizien adierazleak:
 - 5 pertzentiletik gorako prezipitazioko egun kopurua (R95p)
 - Egun oso euritsuen portzentajea (R95pTOT)
 - Egun bateko eta bost eguneko gehieneko prezipitazioa (Rx1day, Rx5day)

Batez besteko prezipitazioa

- Euria egin duen elkarren segidako egun kopurua (CDD) (CWD)
- Eguneako prezipitazio-intentsitatea (SDII)

ID	Adierazlearen izena	Definizioa	Unitatea
Hotz-muturrak			
FD0	Izozte-egunak	0 °C-tik beherako TN (eguneko gutxienekoa) izan duen urteko egun kopurua	egunak
ID0	Izotz-egunak	0 °C-tik beherako TX (eguneko gehienekoa) izan duen urteko egun kopurua	egunak
TXn	Min TX	Eguneko gehieneko tenperaturaren hilabeteko gutxieneko balioa	°C
TNn	Min TN	Eguneko gutxieneko tenperaturaren hilabeteko gutxieneko balioa	°C
TN10p	Gau hotzak	TN 10 pertzentiletik beherakoa duten egunen portzentajea	egunak
Bero-muturrak			
SU	Udako egunak	25 °C-tik gorako TX (eguneko gehienekoa) izan duen urteko egun kopurua	egunak
TR	Gau beroak	20 °C-tik gorako TN (eguneko gutxienekoa) izan duen urteko egun kopurua	egunak
TXx	TX adierazlearen gehienekoa	Eguneko gehieneko tenperaturaren gehieneko balioa	°C
TNx	TN adierazlearen gehienekoa	Eguneko gutxieneko tenperaturaren gehieneko balioa	
TX90p	Egun beroak	90 pertzentiletik beherako TX izan duen egun kopurua	egunak
HWN	Bero-bolada kopurua	Bero-bolada kopurua urtean (gertaerak)	Gertaera kopurua
Batez besteko tenperatura			
DTR	Eguneko tenperaturen tartea	TX eta TN arteko batez besteko aldea	°C
Prezipitazio-muturrak			
CDD	Elkarren segidako egun lehorrak	1 mm-tik beherako RR izan duten elkarren segidako gehieneko egun kopurua	egunak
R95p	Egun euritsuak	95 pertzentiletik gorako prezipitazioko egun kopurua	mm
R95pTOT	Egun euritsuen portzentajea, urteko prezipitazioarekiko	Guztizko prezipitazioaren portzentajea, 95 pertzentiletik gorako prezipitaziodun egunei lotuta	%
Rx1day	Gehieneko prezipitazio kopurua egun batean	Egun batean metatutako gehieneko prezipitazioa	mm
Rx5day	Gehieneko prezipitazio kopurua bost egunetan	Bost egunetan metatutako gehieneko prezipitazioa	mm
Batez besteko prezipitazioa			

PRCPTOT	Urteko guztizko prezipitazioa egun hezeetan	Urteko guztizko prezipitazioa egun hezeetan (RR >= 1 mm)	mm
CWD	Euria egin duen elkarren segidako egun kopurua	1 mm-tik gorako RR izan duen elkarren segidako egun kopurua	egunak
SDII	Eguneko prezipitazio-intentsitatea	Eguneko prezipitazio kopurua egun heze baterako (RR >= 1 mm)	mm

1. Taula. Aztertutako indize klimatikoen laburpena eta deskribapena. TX da gehienezko tenperatura; TN da gutxieneko tenperatura eta RR da prezipitazioa.

3.3 EMAITZAK


Jarraian, 1929-2015 aldirako joera historikoen analisisan eta indize klimatikoaren kalkuluan lortutako emaitzak xehatzen dira.

3.3.1 Joera historikoen analisisa (1929-2015)


3.3.1.1 Urteko gehieneko eta gutxieneko tenperatura

Joeren analisisa: Mann-Kendall (ez-parametrikoa), Spearmanen korrelazioa, Rho (ez-parametrikoa) eta erregresio lineala (parametrikoa).

Froga estatistiko guztietarako joera esanguratsua erakusten dute datuek ("turning point" erako izan ezik). Gehieneko zein gutxieneko tenperaturetarako joera positiboa dago aztertutako aldian (1929-2015); horrek esan nahi du tenperatura igo egin dela urteetan zehar.




2. Irudia Spearmanen korrelazioa (Rho)




3. Irudia Erregresio lineala

Aldaketak antzeman dira batez bestekoan eta medianan: Banaketarik gabeko CUSUM grafikoa (ez-parametrikoa), desbideratze metatua (parametrikoa), Worsley Likelihood ratioa (parametrikoa).


Joeren aldaketa bat antzematen da 1986an gehienezko tenperaturetarako, eta 1987an gutxieneko tenperaturetarako; kasu bietan, aurreko urteetakoak baino handiagoak dira.



4. Irudia Cusum



5. Irudia Desbideratze metatua




6. Irudia Worsely Likelihood

Aldeak batez bestekoan eta medianan, bi aldi ezberdinetan: Rank-Sum (ez-parametrikoa), t-Student (parametrikoa).

Goranzko joera erakusten dute hiriburuaren inguruan (Igeldoko estazioan) bildutako tenperaturari dagozkion datu historikoek, mundu-mailan jasotako datuekin bat etorriz. 1995-2014 aldia 19 urte beroenetakoen artean ageri da, gainazaleko tenperaturaren erregistro instrumentaletan (2010. urtea salbu).

Hiribururako urteko batez besteko tenperaturaren anomaliazko baloreek (datu historikoetatik abiatuta kalkulaturakoak 1961-1990 erreferentziazko aldiarekiko) balio positiboak erakusten dituzte, 0,8 °C inguruko batez besteko igoyerarekin azkeneko urteetan, eta erreferentziazko aldi horrekiko ([Figura 7](#)). Datu horiek bat datoz IPCC taldearen 4. Txostenean (2007) argitaratutako datuekin.



7. Irudia Urteko batez besteko tenperaturaren anomalia Donostiarako, 1961-1990 erreferentziazko aldiarekiko. Igeldoko estazio meteorologikoan erregistratutako tenperaturak.

Klimaren joera historikoak eta etorkizunerako proiektzioak Eranskineko [A.2 Taulan](#) kontsulta daitezke joerari buruzko testen estatistikak.

3.3.1.2 Urteko prezipitazioa

Ez da joera esanguratsurik ikusi prezipitazioaren kasuan (ikus Klimaren joera historikoak eta etorkizunerako proiektzioak Eranskineko A.3 Taula).

3.3.1.3 Urteko hezetasuna


Aztertutako datuek ez dute erakusten urteko hezetasunerako joera esanguratsurik (ikus Klimaren joera historikoak eta etorkizunerako proiektzioak Eranskineko [A.4 Taula](#)).

3.3.2 Indize klimatikoaren kalkulua


3.3.2.1 Hotz-muturrak

- Izotz-egunak eta egun hotzak (FD, ID)

Datu historikoen arabera, ia desagertzen ari dira izotz-egunak (gehieneko tenperatura 0° C-tik beherakoa izan duten egunak). Beraz, gertaera hori murrizten joan da urteekin. Gainera, nabarmen jaitsi da 0° C-tik beherako gutxiengo tenperatura (FD0) izan duen egun kopurua.




8. Irudia Izotz-egunak, antzemandako joera. 0 °C-tik beherako TX (eguneko gehienekoa) izan duen urteko egun kopurua




9. Irudia Izozte-egunak Antzemandako joera. 0 °C-tik beherako TN (eguneko gutxienekoa) izan duen urteko egun kopurua

Etorkizunerako proiektzioen arabera, izozte-egunak desagertzen joango direla uste da.




10. Irudia Izozte-egunak, etorkizunerako espero den aldaketa. 0 °C-tik beherako TX (eguneko gehienekoa) izan duen urteko egun kopurua




11. Irudia Izozte-egunak, etorkizunerako espero den aldaketa. 0 °C-tik beherako TN (eguneko gutxienekoa) izan duen urteko egun kopurua

- Eguneko tenperaturarik hotzenak (TXn, TNn)

Eguneko gehieneko tenperaturen gutxienekoa igo egin da urteetan zehar, batez ere azkeneko 25 urteetan. Beraz, egun hotz kopurua txikiagoa da azkeneko urteetan; hori egiaztatu da gehieneko tenperaturaren gutxienekoa 0,6º C igo baita erreferentziazko aldiarekiko. Gutxieneko tenperaturen gutxienekoa ere 0,9º C igo da; -3,31º C-koa zen erreferentziazko aldian, eta -2,4º C-koa orain.




12. Irudia TXn, antzemandako joera. Eguneko gehieneko tenperaturaren gutxieneko balioa



13. Irudia

TNn, antzemandako joera. Eguneko gutxieneko temperaturaren gutxieneko balioa

Etorkizunerako proiektzioen arabera, gehieneko tenperaturen balio minimoa % 40 eta % 88 artean igoko dela espero da PCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietarako, hurrenez hurren. Beraz, etorkizunean ez da egongo hotz gutxiagoko egunik, nahiz eta ez den aldaketa esanguratsurik espero gutxieneko tenperaturaren gutxienekorako.




14. Irudia

TXN, etorkizunerako espero den aldaketa. Eguneko gehieneko tenperaturaren gutxieneko balioa


- Gau hotzen kopurua (TN10p).

Ia erdira jaitsi da azkeneko urteetan gau hotzen portzentajea. Lehen urteko gauen % 10 ziren gau hotzak, eta orain % 5,7 dira.



15. Irudia TN10p, antzemandako joera. TN 10 pertzentiletik beherakoa duten egunen portzentajea.

Etorkizunerako ere egun hotzen portzentajea jaitsi egingo dela espero da –egun hotzak dira 10 pertzentilaz azpiko gutxieneko tenperatura dutenak–. Jaitsiera hori % 40 eta % 64 artekoa izango da, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietarako, hurrenez hurren.




16. Irudia TN10p, etorkizunerako espero den aldaketa. TN 10 pertzentiletik beherakoa duten egunen portzentajea.

3.3.2.2 Bero-muturrak


- Udako egun beroen eta oso beroen kopurua (SU)

Badirudi udako egun beroen kopurua gehitzeko joera dagoela, joera hori oso esanguratsua ez den arren. Gaur egungo denbora-aldian, erreferentziazko aldian baino 25º C-tik gorako tenperaturako 5 egun gehiago dago.



17. Irudia SU, antzemandako joera. Udako egunak.


Etorkizunerako ere 25º C-ko tenperatura gaitutuko duen egun kopurua handitu egingo dela espero da. Lortutako datuen arabera, % 67 eta % 87 arteko igoera gertatuko da, hurrenez hurren, mende erdialde eta amaierarako.



18. Irudia SU, etorkizunerako espero den aldaketa. Udako egunak.

- Gau beroen kopurua (TR)


Azkeneko 30 urteetan, ez da joera argirik antzeman gau beroen kopuruari dagokionez. Hala ere, etorkizunerako tenperaturari buruzko proiektzioek erakusten dute 20º C-tik gorako gutxieneko tenperaturako 5-15 gau gehiago egongo dela urtean mende amaieran (erreferentziazko aldian, 2 gau urtean).




19. Irudia TR, etorkizunerako espero den aldaketa. Gau beroak. 20 °C-tik gorako TN (eguneko gutxienekoa) izan duen egun kopurua urtebetean.

- Eguneko gehieneko tenperatura (TXx, TNx).

Eguneko gehieneko tenperaturak ez dauka joera esanguratsurik, nahiz eta badirudien azkeneko 10 urteotan igoera gertatu dela. Hala ere, gutxieneko tenperaturarik altuena zertxobait igo da azkeneko urteetan (0,4 °C). Horrek eguneko temperaturei eragiten die, eta egun beroxeagoak izaten joan gara.



20. Irudia TNx, antzemandako joera. Eguneko gutxieneko tenperaturaren gehieneko balioa.




21. Irudia TXx, antzemandako joera. Eguneko gehieneko tenperaturaren gehieneko balioa.

Proiekzioen arabera, gutxieneko tenperaturaren gehieneko balioa % 2 eta % 13 artean igoko dela espero da RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietarako, hurrenez hurren. Gehieneko tenperaturaren gehieneko balioari dagokionez, espero da 8.5 agertokirako igoera txiki bat gertatuko dela mende amaierarako. RCP 4.5 agertokirako, berriz, ez da aldaketa esanguratsurik espero.


- Egun beroak (TX90p).

Egun beroen (egun beroak dira 90 pertzentila gainditzen ez duten tenperatura dutenak) kopuruak ere nabarmen egin du gora urteak pasa ahala, nahiz eta igoera hori pixkanakakoa izan den, TX90p-ren grafikoak erakusten duen bezala; grafiko horretan ikusten da erreferentziazko aldiaren baino urteko 2,4 egun bero gehiago dagoela gaur egun.



22. Irudia TX90, antzemandako joera. Egun beroak. 90 pertzentiletik beherako TX izan duen egun kopurua


Mende amaierarako goranzko joerak jarraituko duela espero da: 36 egun RCP 4.5 agertokirako eta 62 egun RCP 8.5 agertokirako.



23. Irudia TX90p, etorkizunerako espero den aldaketa. Egun beroak. 90 pertzentiletik beherako TX izan duen egun kopurua.


- Bero-bolada kopurua (HWN)

Serie historikoan ez dago bero-boladen inguruko joera esanguratsurik. Dena den, 2014a izan zen arren bero-bolada gutxieneko urtea, azkeneko 20 urteotan, oro har, erreferentziazko aldian baino bero-bolada gehiago egon da (2 bero-bolada urtean gaur egun, eta bakarria erreferentziazko aldian).



24. Irudia HWN, antzemandako joera. Bero-bolada kopurua urtean (gertaerak)

Etorkizunari dagokionez, proiektzioen arabera, gehitu egingo da gertaera kopurua. Mende amaierarako, urtean 2-4 bero-bolada gehiago gertatuko dela espero da, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokiak kontuan hartuta.




25. Irudia HWN, etorkizunerako espero den aldaketa. Bero-bolada kopurua urtean (gertaerak)

3.3.2.3 Batez besteko temperatura

- Eguneko temperatura heina (DTR)

Behaketen arabera, ez dago joera esanguratsurik eguneko tenperatura heinari dagokionez. Azkeneko 20 urteotan igo egin dela ikusten den arren, 1960tik 1970era ere igo egin zen adierazle hori. Mende amaierarako proiektzioei dagokienez, ez da espero aldaketa esanguratsurik.




26. Irudia DTR, antzemandako joera. Gehienezko tenperaturaren eta gutxienezkoaren arteko aldea.

3.3.2.4 Prezipitazio-muturrak

- Lehorte-adierazleak. Euririk gabeko elkarren segidako egun kopurua (CDD)


Ez da joerarik antzematen aztertutako datuetan. Hala ere, mende amaierarako, ziurgabetasun handia dagoen arren, euririk gabeko elkarren segidako egun kopurua % 14 eta % 45 artean gehituko dela espero da, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokien arabera.



27. Irudia CDD, etorkizunerako espero den aldaketa. 1 mm-tik beherako RR duten elkarren segidako gehienezko egun kopurua

- Prezipitazio bizien adierazleak.


Ziurgabetasun handia dago muturreko euriei dagokion urteko guztizko prezipitazioari dagokionez (R95p). Hala ere, RCP 8.5 agertokia erreferentziazat hartuta, badirudi % 5 gehituko direla mende erdirako, eta % 1 mende amaierarako.



28. Irudia R95p, etorkizunerako espero den aldaketa. 95 pertzentiletik gorako prezipitazioko egun kopurua.

- Egun oso euritsuen portzentajea (R95pTOT)

Ez da joerarik antzematen serie historikoan, baina mende amaierarako, 95 pertzentiletik gorako prezipitaziodun egunei lotutako guztizko prezipitazioaren portzentajea handitu egingo dela espero da. Hain zuzen ere, eta ziurgabetasun handiz bada ere, uste da % 7 eta % 15 arteko igoera gerta litekeela, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietarako.



29. Irudia R95ptot, etorkizunerako espero den aldaketa. Guztizko prezipitazioaren portzentajea, 95 pertzentiletik gorako prezipitaziodun egunei lotuta


- Egun bateko eta bost eguneko gehienezko prezipitazioa (Rx1day, Rx5day)

Ez da joerarik antzematen serie historikoan. Etorkizunerako proiektzioei lotutako ziurgabetasuna handia denez, ezin daiteke esan mende amaierarako aldaketa esanguratsurik espero denik. Nolanahi ere, % 4-7ko igoera gerta daiteke mende amaierarako, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokiak kontuan hartuta.

3.3.2.5 Batez besteko prezipitazioa

- Urteko guztizko prezipitazioa (PRCPTOT)


Ez da joerarik antzematen serie historikoan. Prezipitazioei buruzko etorkizunerako proiektzioen inguruko ziurgabetasuna handia bada ere, mende amaierarako urteko prezipitazioaren % 4 eta % 9 arteko jaitsiera txikia gertatuko dela esan daiteke, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietarako.



30. Irudia PRCPTOT, etorkizunerako espero den aldaketa. Urteko guztizko prezipitazioa egun hezeetan ($RR \geq 1$ mm)

- Euridun elkarren segidako egun kopurua (CWD)


Ez da joerarik antzematen serie historikoan, eta ziurgabetasun handia dago etorkizunerako proiektzioetan.



31. Irudia CWD, etorkizunerako espero den aldaketa. 1 mm-tik gorako RR duten elkarren segidako egun kopurua

- Eguneroko prezipitazio-intentsitatea (SDII)

Ez da joerarik antzematen serie historikoan, eta ziurgabetasun handia dago etorkizunerako proiektzioetan.



32. Irudia SDII, etorkizunerako espero den aldaketa. Eguneko prezipitazio kopurua egun heze baterako ($RR \geq 1 \text{ mm}$)

3.4 ONDORIOAK

Emaitzen atalean adierazi den bezala, azkeneko urteetan gehienezko zein gutxieneko tenperaturetarako joera positiboa egon dela dioten ebidentziak daude. Batez besteko tenperaturari dagokionez ere igoera ertaina gertatu da, $0,8^\circ \text{C}$ ingurukoa. Hala ere, ezin da joerarik antzeman, ez prezipitazioaren kasuan, ez hezetasunarenean, adierazle horien jokaeraren ondorioz.

Etorkizunerako proiektzioei dagokienez, datu historikoen bitartez antzemandako joera bera espero da kasu batzuetan.

Ebidentzien arabera, ia desagertzen ari dira izotz-egunak. Gainera, egun hotz gutxiago izaten joan gara azkeneko urteotan. Mende amaierarako proiektzioek iragartzen dute desagertu egingo direla izotz-egunak, eta gutxitu egingo dela egun hotzen kopurua.

Ikusitako datuen arabera, badirudi udako egun beroen kopurua gehitzeko joera dagoela, joera hori oso esanguratsua ez den arren. Etorkizunerako ere igoera nabarmena gertatuko dela espero da.

Etorkizunean $2,8^\circ \text{C}$ igoko da gehienezko tenperatura, agertoki muturrenekoaren arabera (RCP 8.5). Gainera, 20°C -tik gorako gutxieneko tenperaturako 5-15 gau gehiago izango dira urtean mende amaieran. Eguneko gehienezko tenperaturaz gain, gaueko tenperaturak ere eragiten dio osasunari; izan ere, egunean zehar tenperatura altuak jasan ondoren, tenperatu horiek jaisten ez badira, nekea handitu egiten da eta murriztu egiten da oneratzeko gaitasuna.

Historikoki ez den arren egon gaur egun bero-bolada gehiago gertatzen denaren ebidentziarik, proiektzioek diote mende amaierarako urteko 2-4 bero-bolada gehiago gertatuko dela.

Prezipitazioen inguruko etorkizunerako proiektzioei dagokienez, tenperaturaren kasuan baino ziurgabetasun handiagoa dago. Emaitzei lotutako ziurgabetasuna nolabaiteko kontuarekin hartuta, gertaera batzuk aurrera genitzake:

- Mende amaierarako, % 14 eta % 45 artean gehituko da euririk gabeko elkarren segidako egun kopurua, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokiak kontuan hartuta, hurrenez hurren.
- Guztizko prezipitazioaren portzentajearen igoera txikia aurreikusten da, 95 pertzentiletik gorako prezipitaziodun egunei lotuta. Indize horretako joera positiboak esan nahi du muturren ekarpen handiagoa dagoela urteko prezipitazio kopuruan.
- Esan liteke, bestalde, egun batean metatutako gehienezko prezipitazioa % 4 eta % 7 artean handitu daitekeela, hurrenez hurren, RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokien arabera.

4. DONOSTIA HIRIAREN KOSTAN KLIMA ALDAKETAK DITUEN EBIDENTZIEN ETA INPAKTUEN EBALUAZIOA

AZTI-Tecnaliak egindakoa da epigrafe honetan jasotzen den informazioa⁷.

4.1 SARRERA

Klima aldaketaren ondoriozko Itsasoaren Batez Besteko Mailaren igoerak eta olatuekin lotutako muturreko gertaeren biziagotzeak inpaktu garrantzitsuak eragin ditzakete XXI. mendean zehar, Klima aldaketari buruzko Gobernu Arteko Panelaren 5. Txostenean (IPCC, 2014) jasotzen den bezala. IPCC panelaren bosgarren txostenaren arabera (AR5, 2013) itsasmaila 26 eta 82 zentimetro artean igo liteke mende amaieran, 2007an aurreikusitakoa baino gehiago, orduan 18 eta 59 zentimetro arteko igoera aipatzen baitzen. Beraz, goitik jota berrikusi behar dira Bizkaiko golkorako zenbatetsitako itsasoaren batez besteko mailaren 29 eta 49 zentimetro arteko (Chust et al., 2010) igoeraren eskualdeko proiektzioak. Gipuzkoako kostaldean egin zen arrisku horren ebaluazioa (Liria et al. 2011), agertoki moderatuekin, eta ebaluazio hark adierazten zuen kostako eremu urbanizatuen uholde-arriskua zegoela, hondartzetan higadura sortzekoa, ur gazia estuario eta lurpeko uretan sar zitekeela eta hezeguneak galdu, besteak beste, itsasmailaren igoerarekin batera. Behin agertoki horiek aztertu ondoren, adierazitako arriskuak handiagoak izango direla aurreikus daiteke.

4.2 METODOLOGIA

4.2.1 Klima aldaketaren ebidentzien ebaluazioa kostan

Itsasoaren tenperaturarako, Donostiako Aquariumeko gainazaleko tenperaturaren urteko joerak aztertu dira. Itsasoaren batez besteko mailarako, PSMSL (*Permanent Service for Mean Sea Level*) zerbitzutik eskuratutako Bilboko, Santanderreko, Coruñaeko eta Newlyneko mareografoetako itsasoaren batez besteko mailaren urteko joerak aztertu dira.

4.2.2 Klima aldaketaren ondorioz Donostiako kostan sor daitezkeen arriskuak eta zaurgarritasunak

4.2.2.1 Itsasmailaren eskualdeko agertokiaren definizioa

IPCC panelaren bosgarren txostenaren arabera (AR5, 2013), itsasmaila 26 eta 82 zentimetro artean igo liteke mende amaieran, 2007an aurreikusitakoa baino gehiago, orduan 18 eta 59 zentimetro arteko igoera aipatzen baitzen. Beraz, goitik jota berrikusi behar dira Bizkaiko

⁷ Chust, G. eta P. Liria (2016). Donostia hiriaren kostan klima aldaketak dituen ebidentzien eta inpaktuaren ebaluazioa. Txosten argitaragabea, AZTIk Tecnalia Research & Innovation Fundazioarentzat egindakoa. 12 orr.

golkorako zenbatetsitako itsasoaren batez besteko mailaren 29 eta 49 zentimetro arteko (Chust et al., 2010) igoeraren eskualdeko proiektzioak. IPCCren azkeneko txostenak (IPCC AR5) definitutako agertokiek RCP (*Representative Concentration Pathways*) deritzenak erabiltzen dituzte. Berriki mende amaierarako (2081-2100) itsasmailaren igoeraren eskualdeko proiektzioei buruz egin den azterlan batean Slangenek eta beste batzuek (2014) uste dute Bizkaiko golkoan igoera 47 ± 16 cm-koa izango dela RCP 4.5 agertokian, eta 64 ± 22 cm-koa RCP 8.5 agertokian.

Azterlan honetan, beraz, itsasoaren batez besteko mailaren 64 cm-ko igoeradun agertokia hartzen dugu kontuan mende amaierarako, RCP 8.5 agertokirako.

4.2.2.2 Goraguneen Eredu Digitalak (GED) prestatzea eta balioztatzea

Gipuzkoako GED 2008ko hegaldietan oinarritutako Eusko Jaurlaritzaren⁸ LIDAR gailuaren datuetatik lortu zen, 1 m x 1 m-ko erresoluzioarekin, m²-ko bi puntuko dentsitatearekin, eta ETRS89 sisteman erreferentziatuta, koordenada ortometrikoetan, Alacanteko itsasoaren batez besteko mailari dagokion altuerarekin (Alacantekoa itsasoaren batez besteko Bilboko maila baino 0,34 m beherago dago Estatuko Portuen 2009ko azkeneko neurketaren arabera) eta RMS 0,15 m-ko erresoluzio bertikalarekin.

MDS eredua eskuratu zen, eraikinak jasotzen dituen. Honako hauek izan dira datuak eskuratzeko eta, ondoren, datu horiek ArcGIS software-aren bitartez analitzatzeko etapak:


1. Fitxategiak era masiboan jaistea.
2. Rasterizatzeko prozesatzea.
3. Mosaikatzeko prozesatzea.
4. Altuerak egiaztatzea, datu-base altimetrikoekin.

4.2.2.3 Uholde-arriskua, itsasmailaren igoeragatik

Uholde-arriskuen eremua informazio geografikoko sistema bidez mugatu zen bi etapatan ([Figura 33](#)):

- a) Lehenik eta behin, kosta-lerroa definitzen da, kostan zeharreko gehieneko itsasgora astronomikoaren mailatik abiatuta (2,43 m, Bilboko NMM, Alacanteko NMMren 2,77 m-ren baliokidea dena), GED-etik ateratakoa. Ondoren, igoera-mailari dagokion kosta-lerroa definitu zen, antzera (itsasgora astronomikotik 64 m gorago etorkizuneko agertokirako, hau da, 3,41 m Alacanteko NMMri dagokionez) Era horretan, mugatu egin ahal izan zen bi kosta-lerro horien arteko eremua.
- b) Bigarren etapan, eremu hori gehieneko itsasgora astronomikoaren azpitik dauden eta eremu horri lotuta dauden barneko eremuekin bateratu zen. Itsasoarekin lotuta ez zeuden eremuak kendu egin ziren, Webster eta beste batzuei (2006) jarraituz.

⁸ <http://www.geo.euskadi.net>



33. Irudia Itsasmailaren igoeragatiko uholde-arriskuaren mugapena.


4.2.2.4 Uholde-arriskua, muturreko olatuengatik eta itsasmailaren igoeragatik

Muturreko olatuen eta itsasmailaren igoeraren arteko konbinazioaren inpaktua aztertzeko, lantaldeko kideek (Liria et al. 2011) garatutako hurbilketa erabili da, itsasmailaren igoeraren agertokiak eguneratuta; horretarako, IPCCren azkeneko txostenak (AR5) aurreko ataletan definitutakoak hartu dira kontuan, eta LIDAREk emandako eremuaren azkeneko datuek emandako erresoluzio topografiko hobea, aurreko ataletan deskribatutakoa. Horretarako, kosta-zerrendako uholde-kotaren balioa lortu da, Kostaren Modelaketa Sistemaren programaren bitartez (2002). Kostaren Modelaketa Sistema (KMS) metodologia eta tresna numeriko berrien multzo bat da, eta kosta-sistemak hobeto ulertzen eta kostako jarduketak modu fidagarriagoan diseinatzeko laguntzen dute. Kantabriako Unibertsitateak garatu du KMS, Ingurumen Ministerioaren laguntzarekin, eta Atlas eta Mopla moduluak erabili dira, zehazki.

4.3 KLIMA ALDAKETAREN EBIDENTZIEN EBALUAZIOA KOSTAN

4.3.1 Itsasoaren temperatura


Aurrez egindako azterlanei esker, bagenekien itsasoaren gainazaleko urteko tenperaturak joera positiboa erakusten zuela Donostiako Aquariumean 1980tik (Goikoetxea et al., 2009), hain zuzen ere, hamarraldi bakoitzeko 0,15° C-koa 1980tik 2010era. Analisisian sartu diren serieko azkeneko bost urteak (2011-2015) aztertutako aldiko batez bestekoa baino are beroagoak dira; hamarraldi bakoitzeko 0,19° C igo da joera (Figura 34). Emaizta horiek bat datoz Chust eta beste batzuek (2011) egindako berrikuspenarekin; hor adierazten zen gaur egun itsasoaren gainazalaren berotze bat antzematen dela euskal kostan 1980az geroztik (Goikoetxea et al., 2009) eta Bizkaiko Golkoan ere joera bera antzematen dela, eta joera horiek Atlantikoaren Iparraldean (deCastro et al., 2009; Michel et al., 2009, González et al., 2013) behatutakoen antzerakoak direla.



34. Irudia Donostiako Aquariumeko itsasoaren gainazalaren urteko batez besteko tenperatura 1980. urtea eta 2015. urtea bitartean, 1980-2010 aldiko joerekin alderatuta.

4.3.2 Batez besteko itsasmaila

Azterketak dio Bilbo, Santander, Coruña eta Newlynko mareografoen urteko batez besteko itsasmaila-serietako joerak goranzkoak direla; urteko 2,9 mm-koa Bilborako (1993-2014), urteko 2,2 mm-koa Santanderrera (1944-2015), urteko 2,5 mm-koa Coruñarako (1994-2015) eta urteko 1,8 mm-koa Newlynarako (1916-2014) ([Figura 35](#)). Azterlan horri esker, lantaldeak (Chust *et al.* 2009, 2011; González *et al.* 2008, 2013) argitaratutako serie horien aurretiazko azterlanen joerak eguneratu ahal izan dira, eta joera positiboa urteko 2-3 mm-koa dela egiaztatu da; hori bat dator beste neurketa mota batzuen estimazioekin, hala nola satellite bidezkoak eta erregistro paleo-ekologikoak (ikus Chust *et al.* 2011 berrikuspena).




35. Irudia Newlyn, Coruña, Santander eta Bilboko mareografoen itsasoaren urteko batez besteko mailaren joerak.

4.4 KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOZ DONOSTIAKO KOSTAN SOR DAITEZKEEN ARRISKUEN ETA ZAURGARRITASUNEN EBALUAZIOA

4.4.1 Uholde-arriskua, itsasmailaren igoeragatik

Analisi horrek adierazten du itsasmailaren aurreikusitako 64 cm-ko igoerarekin –RCP 8.5 agertoki batean– [36. irudian](#) adierazitako eremua urez estaliko litzatekeela gehienezko itsasgora astronomikoko baldintzetan.




36. Irudia Itsasmailaren 64 cm-ko igoeragatik uholde-arriskua Donostian (gorriz). Urdinez, gehienezko itsasgora astronomikoaren maila adierazten da. Grisez, GEDren altuera.

4.4.2 Uholde-arriskua, muturreko olatuengatik eta itsasmailaren igoeragatik

Analisi horrek adierazten du 50 urteko birgertatze-aldiko muturreko olatuek, mende amaierarako RCP 8.5 agertokirako aurreikusitakoa bezalako itsasmailaren 64 cm-ko igoerarekin konbinatuta, [37. irudian](#) adierazten den eremuari eragingo liokeela Donostian.

Irudi horretan gainera, gaur egungo lurraldearekiko ur-laminak hartutako gehienezko mailak adierazten dira hainbat koloretan, olatuen eta itsasmailaren konbinatutako egoera horretan, biak batera gertatzeko 50 urteko aukerarekin. 0 eta 0,64 m arteko tarteak (fuksiak), itsasmailaren 64

cm-ko batez besteko igoerarekin, olatuen eta itsasmailaren baterako eraginez urez estal daitekeen eremu gehigarria adieraziko luke.



37. Irudia 50 urteko birgertatze-aldiko muturreko olatuen eta itsasmailaren 64 cm-ko igoeraren eraginpeko arrisku-eremua mende amaierarako, RCP 8.5 agertokian.

5. ZAURGARRITASUNAREN ETA ARRISKUAREN EBALUAZIOA UDALERRIAZ AZPIKO MAILAN


Zaurgarritasunaren eta arriskuen ezaugarriak ezartzea funtsezkoa da aurrez deskribatutako klima-mehatxuek Donostiari nola eragingo lioketen jakiteko. Analisi horrek klima aldaketaren aurreko zaurgarritasunaren eta arriskuaren udalerriaz azpiko mailako diagnostikoa egiteko aukera ematen du mehatxu horietarako, eta lehentasunezko ekintza-eremu horiei arreta berezia eskaini beharko litzaieke erantzun-mekanismo eta -politika eraginkorrak ezartzerakoan.

Horretarako, kontuan hartzen dira Donostiako aldagai klimatikoetarako joera historikoen eta etorkizunerako proiektzioen analisiaren emaitzak, batez ere batez besteko eta muturreko tenperaturetarako eta muturreko prezipitazioetarako adierazitakoa, aurrerago xehatuko diren tokiko esparru edo sektoreengan eragin ditzaketen inpaktuengatik, bai eta muturreko olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua jasotzeko mehatxupearan dauden edo inpaktu hori jasan

dezaketen eremuak edo euri-uren eta ibai-uren ondoriozko uholdeen mehatxupean dauden eremuak definitzeko egindako azterlanen emaitzak.

5.1 KONTZEPTUEN ESPARRUA

Klima aldaketaren aurrean Donostiak duen zaurgarritasunaren eta arriskuen analisia bat dator Inpaktuei, Egokitzapenari eta Zaurgarritasunari buruzko IPCCren Bosgarren Txostenean (IPCC, 2014) finkatutako kontzeptu-esparruarekin. Esparru horretan, arriskua klima aldaketari lotuta ulertzen da, eta hementxe laburbiltzen da.




38. Irudia Hartutako kontzeptu-esparrua (IPCC, 2014, 3. or.)

Txosten horretan jasotzen den glosarioak lan honetan erabilitako kontzeptuen definizioak ematen ditu; Klima aldagetakarekin lotutako terminoen glosarioa Eranskinean kontsulta daitezke.

5.2 METODOLOGIA

Donostiaren zaugarritasunaren eta arriskuaren analisisian erabilitako metodologia oinarritzen da tokiko zaugarritasunaren (Tapia et al, 2017) eta arriskuaren (Tapia et al, 2016) ebaluaziorako nazioarte-mailan berriki egindako hurbilketak erreferentziatzat hartzen dituen metodo kualitatibo, estatistiko eta analisi espazialen konbinatutako multzo baten erabileran. Ondorengo irudiak egindako urratsen ikuspegi sekuentziala erakusten du, laburbilduta.



39. Irudia Inpaktu-katerako ikuspegi metodologikoaren sekuentzia

Sekuentzia metodologiko oso hori aplikatu zaie, udalerriaz azpiko mailan, hurrengo ataletan aipatzen eta analizatzen diren inpaktu-kate guztiei.

5.2.1 Arazo-zuhaitzak egitea eta inpaktu-kateak identifikatzea

Arazoen diagramak edo zuhaitzak eginda, aurreikusitako klima-mehatxuekiko udalerriak duen egoera testuinguruan kokatu nahi da, posible izan dadin aldeztatik identifikatzea klima aldaketaren ondorioz sor daitezkeen tokiko inpaktuak eta eraginak, negatiboak zein positiboak. Diagrama horietan, modu grafikoan irudikatzen dira sektore edo esparru jakin batzuen gain aldagai klimatikoaren eta muturreko gertaeren aldaketek dakartzaten kausa-efektu erlazioak, horrek udalerriarentzat izan ditzakeen ondorioekin.

Donostiarako garrantzitsuentzat jo diren sektoreei buruz egin dira arazo-zuhaitz horiek. Hain zuzen ere, ondorengo sektoreak hartu dira kontuan:

- Ur-hornikuntza eta -eskaria,
- Energia,
- Turismoa,
- Eraikitako ingurunea,
- Azpiegiturak, eta

- Osasun publikoa.

Udalerriak jasaten dituen klima aldaketarekin lotutako mehatxuetatik abiatuta, eta arazoaren zuhaitzetan oinarrituta, mehatxu klimatiko nagusi bakoitza udalerrri mailako hartzaile jakin batekin lotzen dituzten inpaktu-kate adierazgarri batzuk aukeratzea proposatzen da.

Udaleko teknikariekin batera aukeratu dira inpaktu-kate batzuk, haien zaurgarritasuna eta arriskua aztertzeko, udalerrirako gaur egun edo etorkizunean izan dezaketen garrantziagatik; honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean⁹,
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean,
- Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean
- Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunarengan, eta
- Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean.

5.2.2 Datu-ereduaren definizioa

Inpaktu-kateak identifikatu ondoren, kate horiek osatzen dituzten faktoreak ezaugarritzeko adierazle egokiak bilatu eta aukeratu dira. Horretarako, literatura zientifikoa eta dauden datu-baseak aztertu dira, eta udalerrriaren errealitate sozialarekin, ekonomikoarekin eta ingurumenari dagokion errealitatearekin ondoen datozen adierazleak identifikatu dira, klima aldaketak dakartzan mehatxuen aurreko horien zaurgarritasuna eta arriskua ebaluatzeko.

Inpaktu-kate bakoitzerako esposizio- eta zaurgarritasun-adierazle batzuk aukeratu dira. Halaber, ondoren, sentikortasun-adierazleetan eta egokitze-adierazleetan azpibanatu dira zaurgarritasun-adierazleak. Adierazleak bi kategoria horien barruan sailkatzeko, honako irizpidea erabili da: adierazle indibidualen balioa handitu ahala, zaurgarritasuna handitzen bada, sentikortasun-adierazle gisa sailkatzen dira; aitzitik, zaurgarritasuna txikitzen bada, egokitze-adierazletzat joko dira.

Horrela, analisisian sartzen diren adierazleekin, Donostiak klima aldaketak izan ditzakeen efektuen aurrean duen esposizioa, sentikortasuna eta egokitzeko gaitasuna ezaugarritu nahi dira.

Alde batetik, esposizioa ezaugarritzen duten adierazleak aukeratu dira hiri-inguruneak eta landa- eta natura-inguruneetako biztanleak eta elementu fisikoak klima-baldintzetan aurreikusten diren aldaketan mehatxupean zein neurritaraino dauden azaltzeko duten gaitasunaren arabera, hartzaileen (biztanleria, eraikuntzak, azpiegiturak, jarduera ekonomikoak eta natura-intereseko eremuak) kokapena kontuan hartuta.

Eta, bestetik, sentikortasun-adierazleak eta egokitzeko gaitasunari dagozkion adierazleak inpaktu horien hartzaileak deskribatzen dituzte (biztanleria, eraikuntzak, azpiegiturak, jarduera


⁹ Zaurgarritasuna eta arriskua aztertzeko ondoreetarako, hiri-ingurunearen barruan sartzen dira eraikuntzak, azpiegiturak eta jarduera ekonomikoak.

ekonomikoak eta natura-intereseko eremuak). Adierazle horiek ezaugarritzen dituzte, hurrenez hurren, haien hauskortasun intrintsekoa eta erresistentzia- edo lehengoratzegaitasuna.

5.2.3 Datuak biltzea, prestatzea eta sortzea

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren analisia nolabaiteko xehetasunez egin nahi zenez, udalerriaz azpiko mailan, erabili diren datuak Donostiako Udalak, sail eta zerbitzu ezberdinen eskutik (Ingurumena, Hirigintza, Turismoa, Sustapena, Saneamendua...) emandakoak izan dira gehienbat, eta tokikoak ez diren beste organismo eta erakunde batzuen datuekin osatu dira (Eusko Jaurlaritza, URA, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa, Aranzadi Zientzia Elkarte, etab.).


Zaurgarritasunaren eta arriskuaren diagnostikoa egiteko, unitate txikia hartu da analisirako unitatetzat, auzoa baino espazio-xehetasun handiagoko lurralde-entitatea. Hirigintzako irizpideak dira batez ere udalerrriaren barruko banaketa horren arrazoiak. Beraz, badaude printzipioz ezein unitate txikitik sartzen ez diren udalerriko eremuak, nahiz eta auzoren baten barruan sartuta dauden. Zaurgarritasunaren eta arriskuen analisia udalerrri osorako egin nahi zenez –eta ez hirigunerako soilik–, auzoa baino xehetasun handiagoko analisi-unitate gehigarri batzuk definitu dira azterlan honetarako, horietako gehienak landa- eta natura-izaera handikoak. [40. irudian](#) ikus daitezke definitutako analisi-unitateak (108 unitate, guztira).



40. Irudia Donostia udalerriko analisi-unitateen mugapen geografikoa.

Emandako datuak SIG tresnen bitartez tratatu eta analizatu dira espazialki. Era horretan, Donostia udalerriaren barruko 108 analisi-unitate guztien esposizioari, sentikortasunari eta egokitze gaitasunari dagozkien adierazleen balioa lortu da, azterlanaren xede diren bost inpaktu-kateetako bakoitzeko.

Adibide gisa, [41. Irudian](#) bero-boladek gizakiaren osasunean izan dezaketen inpaktuari dagokionez biztanleriaren sentikortasuna ebaluatzeko sortutako adierazle indibidualetako bat erakusten da, hain zuzen ere, udalerriko analisi-unitate bakoitzeko biztanleria osoarekiko 70 urtetik gorako biztanleen portzentajea. Kolorearen tonua zenbat eta biziagoa, balioak handiagoak adierazle indibidualean.



41. Irudia Bero-boladek gizakiaren osasunean duen inpaktuaren katerako sentikortasun-adierazlearen adibidea: Analisi-unitate bakoitzeko 70 urtetik gorako biztanleen portzentajea, eta kartografikoki adierazita, kintilen arabera.

5.2.4 Datuen azterketa estatistikoa

Behin datu-basea egituratu ondoren, adierazleen tratamendu estatistiko konplexua egin da, R datuen analisirako softwarea erabilita. Bost inpaktu-kateetako bakoitzerako modu independente eta sekuentzialean egin da analisi hori. Prozesatze horretan, batez ere, datuak eraldatu dira, haien banaketa normalizatzeko; estandarizatu egin dira, adierazleen gehikuntza estatistikoki sendoa izan dadin, adierazleek metrika mota ezberdin ugari erabiltzen baitituzte; banaketaren balio positiboetarako eskalatzea egin da, bai eta barne-mailako trinkotasun-analisia ere, proposatutako datu-eredua balioztatzeko.

5.2.5 Adierazleei duten pisua esleitzea eta indize konposatuak sortzea

Adierazle ezberdinak integratu aurretiko urrats gisa, behin analisi estatistikoa egin ondoren, adierazle horiei beren pisua esleitu zaie, horretarako ere metodo estatistikoak erabilia. Horrekin, adierazle bakoitzari lotutako informazioan erredundantzia saihestea lortu nahi da, eta ez adierazleei garrantzia erlatiboa ematea. Era horretan, informazio erredundantea duten adierazleei pisu txikiagoa ematen zaie, eta pisu handiagoa hartzen dute azalpen-zama indibidual handia dutenek. Horrela, nolabait, haien artean korrelazio handia duten adierazleei dagokiena baino garrantzia handiagoa ematea saihesten da.

Behin pisuak esleitu ondoren, hurrengo urratsa izan da pisudun adierazleak bi indize konposatutan jartzea; bata, sentikortasunari dagokiona eta bestea egokitzeko gaitasunari dagokiona, eta horien konbinazio gisa, zaurgarritasun-indize bat. Zaurgarritasun-indizea eta esposizio-indizea gehitzeak, aldi berean, arriskuari dagokion indize konposatua lortzea ahalbidetu du.

5.2.6 Irteera kartografikoak eta grafikoak sortzea

Azkenik, aurrez adierazitako prozesu estatistikoen ondoren lortutako inpaktu-kate bakoitzeko esposizioari, sentikortasunari, egokitzeko gaitasunari, zaurgarritasunari eta arriskuei dagozkien indizeak Donostiako Udalak emandako analisi-unitateen SIG geruzari lotu zaizkio; aurrez deskribatu den bezala, unitate txikien eta auzoen konbinazioa da geruza hori. Sortutako mapak irakurtzen eta interpretatzen laguntzeko, zegozkien pertzentilen arabera sailkatu dira indize agregatu bakoitzari dagozkion emaitzak. Hain zuzen ere, ondorengo bost motak ezarri dira, haietako bakoitzean antzeko analisi-unitate kopurua hartzen dutenak:

- P0 – P20, 0 eta 20 pertzentilen arteko balioekin, eta dagokion indize agregaturako maila erlatibo txikia adierazten duena.
- P20 – P40, 20 eta 40 pertzentilen arteko balioekin, eta maila erlatibo ertaina-txikia adierazten duena.
- P40 – P60, 40 eta 60 pertzentilen arteko balioekin, eta maila erlatibo ertaina adierazten duena.
- P60 – P80, 60 eta 80 pertzentilen arteko balioekin, eta maila erlatibo ertaina-handia adierazten duena.
- P80 – P100, 80 eta 100 pertzentilen arteko balioekin, eta maila erlatibo handia adierazten duena.

Halaber, grafikoak egin dira indize agregatu bakoitzerako, mapak ematen duten informazioa osatzeko eta analisi-unitate ezberdinetarako indizeen arteko konparazioa errazteko. Donostiako auzo bakoitzeko unitate txikiak taldekatu dira, hainbat alderdi errazago interpretatu ahal izateko,

adibidez, auzo batekin unitate txiki guztiek patroia beraren aurrean berdina jokatzen duten edo, aitzitik, haien artean alde hautemangarriarik ba al dagoen.

5.3 EMAITZAK

Zaugarritasunari eta arriskuei buruzko diagnostikoan lortutako emaitza nagusien laburpena erakusten da epigrafe honetan.

Analisi-unitate eta inpaktu-kate bakoitzerako lortutako indize konposatuaren balioak eta horiek adierazten dituzten grafikoak xehetasunez erakusten dira Inpaktu-kate bakoitzeko indize agregatuaren taulak eta grafikoak deritzon eranskinean.

Liburutegi kartografikoa eranskinean daude eskuragarri sentikortasunari, egokitzeko gaitasunari, zaugarritasunari, esposizioari eta arriskuei dagozkien indize agregatuak, dagozkien inpaktu-kateen arabera sailkatuta, testuinguru kartografiko batean erakusten dituzten mapak.

5.3.1 Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean

33 unitate-analisik dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, mehatxu horren aurreko esposizioaren bat. Analisi-unitate horien azaleraren zati bat uholde-eremuaren barruan dago, 50 urteko birgertatze-aldirako, eta AZTI-Tecnaliak proiektu honetarako berariaz prestatutako kartografian islatuta dago.

Analisi-unitate horien barruan, zaugarritasuna ere aztertu da, inpaktu-kate horretarako aplikagarriak diren sentikortasunari eta egokitzeko gaitasunari dagozkien adierazleentarako dituzten balioen arabera.

2. Taulan erakusten dira beren zaugarritasun-, esposizio- edo arrisku-indizeetakoren bat gutxienez pertzentil-tarterik handienaren barruan dituzten unitateak, hain zuzen ere 80 (P80) eta 100 (P100) pertzentilen artean, edo pertzentil ertain-handien tartean, 60 (P60) eta 80 (P80) pertzentilen artean. Hondo gris ilunez adierazten dira P80 eta P100 arteko balioak; puntudun.

ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA
-------------------	-------	-----------------	------------	----------


bilbez adierazten dira P60 eta P80 artekoak; eta zuriz gainerakoak, P0 eta P60 artekoak.

Miraconcha	AIETE			
Amara - Berri	AMARA BERRI			
Riberas	AMARA BERRI			
Ondarreta	ANTIGUO			
Faro - Erregenea	ANTIGUO			
Matia	ANTIGUO			
Paseo Miraconcha	CENTRO			
Parte Vieja	CENTRO			
Área Romántica	CENTRO			
Gros	GROS			
Sagües	GROS			
Loiola Casco	LOIOLA			
Loiola - Ciudad Jardín	LOIOLA			
Patxilardegi	LOIOLA			
Txomin	LOIOLA			
Campos Eliseos	MARTUTENE			
Portutxo	MARTUTENE			

2. Taula. Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako indize agregatuetan balio handiak edo ertain-handiak dituzten analisi-unitateak.

Ikus daitekeenez, ondorengo auzoetako analisi-unitateetarako (parentesi artean) lortu dira arrisku handieneko balioak:

- Antiguu auzoa (Matia),
- Erdigunea (Mirakontxa pasealekua, Alde Zaharra eta Gune Erromantikoa),
- Gros (Gros eta Sagues) eta
- Loiola (Loiola – Lorategi-hiria).



42. Irudia Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako arrisku erlatibo handiko (P80tik gorako pertzentila) unitateak.

Zaurgarritasun-balio handiak dituzte guztiek, Saguesek izan ezik, unitate horrek zaurgarritasun-maila ertain-altua baitu. Esposizio-balio handia ere badute, oro har, Alde Zaharrak eta Loiola-Lorategi-hiriak izan ezik; horiek balio txikixeagoak dituzte. Zaurgarritasun-balioek ez diote patroia berari jarraitzen eragiten dieten adierazleei dagokienez. Xehetasun handiagoz kontsulta daitezke inguruabar ezberdin horiek Inpaktu-kate bakoitzerako indize agregatu handiko analisi-unitateak eranskinean.

Badaude unitate batzuk, esposizio- edo zaurgarritasun-balio handiak dituzten arren, azkenean ez daudenak arrisku handieneko unitateen artean. Horixe da Ondarretaren eta Txominen kasua – esposizio-balio handiak dituzte–, bai eta Amara Berrirena eta Loiola-Erdigunearena ere – zaurgarritasun-balio handiak dituzte–. Azkenean, arrisku ertain-handia mailaren barruan geratzen dira unitate horiek, 60 eta 80 pertzentilen arteko arrisku-balioak hartzen dituen mailan.

Udalerrian aztertutako 108 unitateei dagozkien indizeen balioak sakonago ezagutzeko, Inpaktu-kate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak deritzon eranskina kontsulta daiteke.

5.3.2 Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean

38 unitate-analisik dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, mehatxu horren aurreko esposizioen bat. Analisi-unitate horien azaleraren zati bat URA/Eusko Jaurlaritzak emandako kartografian agertzen den uholde-eremuaren barruan dago. Uholde-arriskuaren kartografia horrek Urumea ibaiaren eta Añorga erreka toren eraginpeko eremuak hartzen ditu kontuan, baina ez udalerriko beste ur-ibilgu eta erreka to txikiago batzuetako urek estaltzeko arriskua duten eremuak, adibidez, Anoeta, Martutene edo Txingurri. Elementu horiek kontuan hartuko lituzkeen modelizazio hidrologikoak handitu egingo luke identifikatutako analisi-unitateetako uholde-arriskuko azalera eta, ziur aski, baita uholdeen aurreko esposizioa duen unitate kopurua ere.

Beharrezkoa da gauza batzuk argitzea, uholde-arriskuari buruzko kartografia horren erabilerari dagokionez. Horrela, ereduaren iragarpen-gaitasunak agertokien “What if?” (zer gertatuko litzateke baldin eta...?) efektua aztertzea ahalbidetzen du. Oro har, gaur egun erabilgarri dauden eredu klimatikoaren irteerak tarte handiko prezipitazio biziaren irteerak ematen dituzte eta, beraz, etorkizunean euri-jasak gehitu egingo direla dirudien arren, zaila da jakitea gehitze hori zenbatekoa izango den zehazki. Aitzitik, beste azterlan batzuek –Estatuko Meteorologia Agentziak 2008an egindako “Generación de escenarios regionalizados de cambio climático en España” azterlanak, esaterako– diote prezipitazioen joera historikoak ez duela erakutsi tenperaturaren adinako joera definiturik, nahiz eta badirudien aplikatutako ereduak prezipitazioen pixkanakako gutxitze bat iragartzen dutela; Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren ustez, % 15-20 artean haz daitezke prezipitazioak 2100. urterako.

Horregatik, ziurgabetasunak daudenez –Donostia udalerrirako diagnostikorako egindako muturreko prezipitazioen proiektioei buruzko aurrez aipatutako azterlanek ere indartu egiten dituzte ziurgabetasunak, eta zuhurtziaz jokatzeko aldera, lan honetan hurbilketa baten aldeko apustua egiten da; hurbilketa horretan, “What if” agertokia hartzen da kontuan, datu historikoei gehikuntza-portzentaje bat aplikatzen diena. Kasu honetan, % 20ko gehikuntza-koefizientea aplikatzen zaie 100 urteko birgertatze-aldiko emariei, Europako beste herrialde batzuetan kontuan hartu denarekin analogian eta, aldi berean, itsasmailaren batez besteko igoeraren eragina hartzen da kontuan. Beraz, 500 urteko birgertatze-aldiko gaur egungo uholde-eremuaren azalera 100 urteko birgertatze-aldiko etorkizuneko uholde-eremuaren azaleraren lehenengo hurbilketa gisa erabiltzea erabaki da.

Hala ere, erreferentzia hori, etorkizunean, planarekin batera eguneratzea espero da, hurbilketa hobetu egingo baita, emaitza zehatzagoak emateko.

ANALISI-UNITATEAK	AUZOAK	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA
-------------------	--------	-----------------	------------	----------


handiaren barruan dituzten unitateak.

Lugaritz	AIETE			
Amara - Berri	AMARA BERRI			
Riberas	AMARA BERRI			
Ondarreta	ANTIGUO			
Benta - Berri	ANTIGUO			
Matia	ANTIGUO			
Igara	IBAETA			
Campus	IBAETA			
Lorea	IBAETA			
Loiola Casco	LOIOLA			
Loiola - Ciudad Jardín	LOIOLA			
Txomin	LOIOLA			
Cuarteles	LOIOLA			
MARTUTENE 1	MARTUTENE			
Campos Eliseos	MARTUTENE			
Antzita	MARTUTENE			
Martutene	MARTUTENE			
Portutxo	MARTUTENE			
Torrúa Zahar (pol. 27)	MARTUTENE			
ZUBIETA 1	ZUBIETA			

3. Taula. Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako indize agregatueta balio handiak edo ertain-handiak dituzten analisi-unitateak

Ikus daitekeenez, ondorengo auzoetako analisi-unitateetarako (parentesi artean) lortu dira arrisku handieneko balioak:

- Antiguu auzoa (Ondarreta eta Benta berri),
- Ibaeta (Lorea),
- Loiola (Loiola – Lorategi-hiria eta Txomin) eta
- Martutene (Antzita, Martutene eta Portutxo)



44. Irudia Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako arrisku erlatibo handiko (P80tik gorako pertzentila) unitateak.

Antzitak eta Martutenek izan ezik, gainerako unitate guztiek dituzte zaugarritasun-indize handiak; bi horiek indize txikiagoak dituzte. Esposizioari dagokionez, Ondarreta da gainerakoek adinako balio handirik ez duen bakarra. Matia eta Igara unitateek zaugarritasun-balio handiak dituzte, baina horien esposizioa txikiagoa denez, azkenean ez daude balio handienekoen artean. Bestalde, Loiolako hiriguneak bakarrik du balio handia esposizio-indizean eta ez-altua arriskuarenean, bere zaugarritasuna ez baita udalerriko handienetakoa inpaktu-kate horretarako.

Udalerrian aztertutako 108 unitateei dagozkien indizeen balioak sakonago ezagutzeko, Inpaktu-kate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak deritzon eranskina kontsulta daiteke.

5.3.3 Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean


Ibai-jatorriko mehatxu horren aurreko esposizioaren bat –neurri handiagoan edo txikiagoan– duten Donostia udalerriko 38 analisi-unitate identifikatu dira. Analisi-unitate horietan, beren azaleraren zati bat urak hartuko luke drainatze-sarearen butxaduraren ondorioz eta euri-jasen berariazko baldintza batzuetan. Hain zuzen ere, diagnostikoan kontuan hartu den uholde-azalera da 2071-2100 aldirako espero diren bi orduko iraupeneko gehieneko euriek eragindakoari dagokiona, 25 urteko birgertatze-aldiarekin eta muturreneko agertokian (RCP 8.5).

ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA
Errondo	AIETE			
Puio - Lanberri	AIETE			
La Herrera	ALTZA			
Arria	ALTZA			
Amara - Berri	AMARA BERRI			
Anoeta	AMARA BERRI			
Riberas	AMARA BERRI			
Berio	IBAETA			
Campus	IBAETA			
Intxaurrondo Berri	INTXAURRONGO			
Intxaurrondo Zaharra	INTXAURRONGO			
Loiola Casco	LOIOLA			
Loiola - Ciudad Jardín	LOIOLA			
Patxilardegi	LOIOLA			
Txomin	LOIOLA			
Antzita	MARTUTENE			
Martutene	MARTUTENE			
Portutxo	MARTUTENE			
Torrúa Zahar (pol. 27)	MARTUTENE			
Alto de Miracruz - Arrobi	MIRACRUZ- BIDEBIETA			
Bidebieta 1 - Artazkone	MIRACRUZ- BIDEBIETA			
MIRAMÓN - ZORROAGA 1	MIRAMÓN - ZORROAGA			
Iyola	MIRAMÓN - ZORROAGA			
Ilunbe	MIRAMÓN - ZORROAGA			
Zorroaga	MIRAMÓN - ZORROAGA			

4. Taula. Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako indize agregatueta balio handiak edo ertain-handiak dituzten analisi-unitateak

Ikus daitekeenez, ondorengo auzoetako analisi-unitateetarako (parentesi artean) lortu dira arrisku handieneko balioak:

- Altza (Herrera eta Arria),
- Amara Berri (Anoeta),
- Loiola (Loiola – Lorategi-hiria eta Txomin) eta
- Martutene (Portutxo eta Torrúa Zahar (27. ind.)) eta
- Miramon – Zorroaga (Ilunbe)



46. Irudia Euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean deritzon inpaktu-katerako arrisku erlatibo handiko (P80tik gorako pertzentila) unitateak.

Udalerriko gainerako unitateekin alderatuta arrisku erlatibo handia erakusten duten analisi-unitateen artean bik bakarrik (Herrera eta Loiola-Lorategi Hiria) dituzte zaugarritasun- zein esposizio-balio handiak. Arriak, Torrua Zaharrek (27. ind) eta Ilunbek, berriz, arrisku-balio handiak dituzte, batez ere zaugarritasun-balio handien ondorioz, eta haien esposizio-balioak ez dira horren garrantzitsuak. Aitzitik, Anoetak, Txominek eta Portutxok arrisku-balio handiak izatearen arrazoia da esposizio-balio handiak izatea, eta ez horrenbeste zaugarritasun-balioengatik. Halaber, Erriberak, Intxaurren Berri eta Iyola bezalako unitate zaugarriak ez daude arrisku handieneko unitateen artean, nahiz eta arrisku-maila ertain-handia duten. Nabarmentzekoa da, bestalde, Antzita, Bidebieta 1 – Artazkone eta Miramon-Zorroaga 1 bezalako unitateak esposizio handieneko unitateen artean dauden arren, ez daudela arrisku handieneko unitateen artean.

Udalerrian aztertutako 108 unitateei dagozkien indizeen balioak sakonago ezagutzeko, Inpaktukate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak deritzon eranskina kontsulta daiteke.

5.3.4 Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean

Etorkizuneko hiri-klimaren maparik ez dagoenez, udalerriko analisi-unitate guztiak mehatxu horren pean egon litezkeela jo da.

Beraz, Donostiako 108 analisi-unitateetarako aztertu da aldi berean beren zaugarritasuna, inpaktu-kate horretarako aplikagarriak diren sentikortasunari eta egokitze gaitasunari dagozkien adierazleentarako dituzten balioen arabera.


5. Taulan erakusten dira beren zaugarritasun-, esposizio- edo arrisku-indizeen baloreetakoren bat pertzentil-tarterik handienaren barruan dituzten unitateak.

ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA	ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA
Bera - Bera	AIETE				Paseo del Urumea	EGIA			
Etxadi	AIETE				Atotxa	EGIA			
La Herrera	ALTZA				Iruresoro	EGIA			
Larratxo	ALTZA				Jai - Alai	EGIA			
Altza - Gaina	ALTZA				Gros	GROS			
Arria	ALTZA				Sagües	GROS			
Oleta	ALTZA				El Infierno	IBAETA			
Buenavista	ALTZA				Igeldo	IGELDO			
Molinao	ALTZA				Marrutxipi	INTXAURRONDO			
Eskalantegi	ALTZA				Intxaurren Norte	INTXAURRONDO			
Amara - Berri	AMARA BERRI				Intxaurren Sur	INTXAURRONDO			
Riberas	AMARA BERRI				Intxaurren Berri	INTXAURRONDO			
Benta - Berri	ANTIGUO				Loiola Casco	LOIOLA			
Heriz - Aizgorri	ANTIGUO				Loiola - Ciudad Jardín	LOIOLA			
Matia	ANTIGUO				Campos Eliseos	MARTUTENE			
Rekalde	AÑORGA				Portutxo	MARTUTENE			
Parte Vieja	CENTRO				Torrúa Zahar (pol. 27)	MARTUTENE			
Área Romántica	CENTRO				Bidebieta	MIRACRUZ- BIDEBIETA			
Amara Zaharra	CENTRO								

5. Taula. Bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean inpaktu-katerako indize agregatuetan balio handiak dituzten analisi-unitateak.

Ikus daitekeenez, ondorengo auzoetako analisi-unitateetarako (parentesi artean) lortu dira arrisku handieneko balioak:

- Altza (Herrera, Larratxo, Altza-Gaina, Arria, Oleta, Buenavista eta Eskalantegi),
- Amara Berri (Amara Berri eta Erriberak),
- Antiguo (Benta Berri eta Matia),
- Añorga (Errekalde),
- Erdigunea (Alde Zaharra eta Gune Erromantikoa),
- Egia (Atotxa, Iruesoro eta Jai-Alai),
- Gros (Gros),
- Intxaurren (Intxaurren Hegoalde eta Intxaurren Berri),
- Loiola (Loiola hirigunea) eta
- Miracruz-Bidebieta (Bidebieta)



47. Irudia Bero-boladen inpaktu-gizakiaren osasunean inpaktu-katerako arrisku erlatibo handiko (80tik gorako pertzentila) unitateak.

Askok dira unitate horiek arrisku-balio handiak izatearen arrazoiak, eta kasu jakin bakoitzaren arabera dira. Horrela, Altzako unitateen kasuan, zaugarritasun-balio handiak dituzte unitateak. Gainera, Larratxo, Altza-Gaina eta Arriaren kasuetan, esposizio-balioak handiak direla ikusten da, biztanleriaren kontzentrazioa handiagoa delako. Arrisku handieneko Amara Berriko eta Antiguo unitateen kasuan, berriz, esposizio-maila handia delako gertatzen da hori, nahiz eta zaugarritasun-maila ez den horrenbestekoa. Bestelakoa da Errekaldereen kasua; biztanle kopuru txikiago unitatea izan arren, balio ertain-handiak edo handiak ditu sentikortasun-adierazleetako batzuetan, eta txikiak egokitzeko gaitasunari dagozkion adierazle batzuetan.

Horrek, azkenean, zaugarritasun-maila handia ematen dio eta, aldi berean, arrisku-balio handia. Erdiguneko Auzoak, Alde Zaharrak eta Gune Erromantikoak esposizio-maila handia dute eta, gainera, azkeneko unitate horrek zaugarritasun-maila handia dauka. Groseko Gros unitateak, Intxaurrendoko Intxaurrendoko Hegoaldeak eta Intxaurrendoko Berrik, eta Mirakruz-Bidebietako Bidebieta unitateak arrisku-maila handia dute, haien esposizio-maila handia delako, nahiz eta zaugarritasun-maila handia ez izan. Loiolako erdiguneak, berriz, balio handiak ditu esposizio-maila zein zaugarritasun-maila ere handiak direlako.

Udalerrian aztertutako 108 unitateei dagozkien indizeen balioak sakonago ezagutzeko, Inpaktukate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak deritzon eranskina kontsulta daiteke.

5.3.5 Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean

Etorkizuneko landa- eta natura-inguruneen klimaren maparik ez dagoenez, landa- eta natura-eremuak edo hiri-espazio berdeak dituzten udalerriko analisi-unitate guztiak mehatxu horrenpean egon litezkeela jo da.

Beraz, Donostiako 108 analisi-unitateetarako aztertu da aldi berean beren zaugarritasuna, inpaktukate horretarako aplikagarriak diren sentikortasunari eta egokitzeko gaitasunari dagozkien adierazleetarako dituzten balioen arabera.


6. Taulan erakusten dira beren zaugarritasun-, esposizio- edo arrisku-indizeen baloreetakoren bat pertzentil-tarterik handienaren barruan dituzten unitateak.

ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA	ANALISI-UNITATEAK	AUZOA	ZAURGARRITASUNA	ESPOSIZIOA	ARRISKUA
Lugaritz	AIETE				IBAETA 1	IBAETA			
Arbaizenea	AIETE				IBAETA 2	IBAETA			
Puio - Lanberri	AIETE				IGELDO 1	IGELDO			
ALTZA 1	ALTZA				Intxaurrondo - Ciudad Jardín	INTXAURRONGO			
Auditx Akular - Landarro - Esnabide	ALTZA				LANDARBASO 1	LANDARBASO			
Riberas	AMARA BERRI				LOIOLA 1	LOIOLA			
ANTIGUO 1	ANTIGUO				Loiola - Ciudad Jardín	LOIOLA			
Ondarreta	ANTIGUO				Cuarteles	LOIOLA			
Faro - Erregenea	ANTIGUO				Loiola	LOIOLA			
Parque	ANTIGUO				MARTUTENE 1	MARTUTENE			
AÑORGA 1	AÑORGA				Torrúa Zahar (pol. 27)	MARTUTENE			
AÑORGA 2	AÑORGA				MIRACRUZ- BIDEBIETA 1	MIRACRUZ- BIDEBIETA			
ATEGORRIETA- ULIA 1	ATEGORRIETA- ULIA				MIRAMÓN - ZORROAGA 1	MIRAMÓN - ZORROAGA			
Isla Santa Clara	CENTRO				Miramón	MIRAMÓN - ZORROAGA			
Paseo Miraconcha	CENTRO				OBERAN	OBERAN			
Monte Urgull	CENTRO				Hipódromo - Bugati	ZUBIETA			
Mundaitz	EGIA				ZUBIETA 1	ZUBIETA			
Sagües	GROS								

6. Taula. Tenperaturen inpaktuak biodibertsitatean inpaktu-katerako indize agregatueta balio handiak dituzten analisi-unitateak.

Ikus daitekeenez, ondorengo auzoetako analisi-unitateetarako (parentesi artean) lortu dira arrisku handieneko balioak:

- Aiete (Lugaritz eta Puio-Lanberri),
- Altza (Altza 1),
- Antiguu (Antiguu 1 eta Itsasargi-Erregenea),
- Añorga (Añorga 1 eta Añorga 2)
- Ategorrieta-Ulia (Ategorrieta-Ulia 1),
- Erdigunea (Santa Klara uhartea eta Urgull mendia),
- Egia (Mundaitz),
- Ibaeta (Ibaeta 1 eta Ibaeta 2)
- Igeldo (Igeldo 1),
- Intxaurren (Intxaurren – Lorategi-hiria),
- Landarbaso (Landarbaso 1),
- Loiola (Loiola 1),
- Martutene (Martutene 1),
- Mirakruz-Bidebieta (Mirakruz-Bidebieta 1)
- Miramon-Zorroaga (Miramon-Zorroaga 1)
- Oberan (Oberan) eta
- Zubieta (Zubieta 1)



48. Irudia Tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean inpaktu-katerako arrisku erlatibo handiko (80tik gorako pertzentila) unitateak.

Altza 1, Añorga 2 eta Ategorrieta-Ulia 1, Ibaeta 1, Igeldo 1, Intxaurren-Lorategi-hiria, Mirakruz-Bidebieta 1, Oberan eta Zubieta 1 unitateetan arrisku-maila handia da esposizio-maila zein zaugarritasun-maila handiak direlako, batez ere landa- eta natura-azalera dentsitate handiko eremuak direlako eta biodibertsitate-indize handiak dituztelako. Puio-Lanberri, Antigua 1, Santa Klara uhartea, Urgull mendia, Mundaitz, Ibaeta 1, Landarbaso 1, Loiola 1, Martutene 1 eta Miramon-Zorroaga 1 unitateek, zaugarritasun-maila txikiagoak dituzten arren, natura-erako azalera handiak dituzte. Aitzitik, Lugaritz eta Itsasargia-Erregenea unitateak arrisku-maila handikoak izatearen arrazoia da zaugarriak direla batez ere biodibertsitatearen ikuspegitik duten interesagatik, eta ez horrenbeste beren esposizio-mailagatik.

Udalerrian aztertutako 108 unitateei dagozkien indizeen balioak sakonago ezagutzeko, Inpaktukate bakoitzeko indize agregatuen taulak eta grafikoak deritzon eranskina kontsulta daiteke.

5.4 ONDORIOAK

Zaugarritasuna eta arriskuak ezaugarritzea funtsezkoa da jakiteko nola eragin diezaieketen klimari dagozkien mehatxu nagusiek Donostia udalerrinari eta, aldi berean, erantzuteko mekanismo eta politika eraginkorrak ezartzerakoan arreta berezia eskaini beharko litzaiekeen lehentasunezko ekintza-esparruak identifikatzeko.

Klima aldaketaren aurreko arriskuaren ebaluazio hau egiteko, kontuan hartu da Inpaktuei, Egokitzapenari eta Zaugarritasunari buruzko IPCCren Bosgarren Txostenean (2014. urtea) definitutako kontzeptu-esparrua.

Ez da bakarrik ikuspuntu kualitatibo batetik egindako zaugarritasunaren eta arriskuen analisia, Donostia udalerrirako erabilitako metodologia oinarritzen da tokiko zaugarritasunaren eta arriskuen ebaluaziorako nazioarte-mailan berriki egindako hurbilketak erreferentziazat hartzen dituen metodo kualitatibo, estatistiko eta analisi espazialen konbinatutako multzo baten erabileran.

Zaugarritasunaren eta arriskuen analisi horren hasiera gisa, arazoen diagramak edo zuhaitzak egin dira, udalerriri aurreikusitako klima-mehatxuekin lotuta duen egoera testuinguruan jartzeko helburuz eta, era horretan, aldeztu aurretik identifikatzeko klima aldaketaren ondorioz sor daitezkeen toki-mailako inpaktuak eta efektuak. Hain zuzen ere, Donostiarako garrantzitsuentzat jo diren sektoreei buruz egin dira arazoen zuhaitz horiek: Ur-hornikuntza eta -eskaria; Energia; Turismoa; Eraikitako ingurunea; Azpiegiturak; eta Osasun publikoa.

Udalerriri jasaten dituen klima aldaketarekin lotutako mehatxuetatik abiatuta, eta arazoen zuhaitzetan oinarrituta, mehatxu klimatiko nagusi bakoitza udalerriri mailako hartzaile jakin batekin lotzen dituzten inpaktukate adierazgarri batzuk aukeratzea proposatzen da.

Zaugarritasunaren eta arriskuen analisi kuantitatiboa egin da Donostia udalerrirako, gaur egun edo etorkizunean, garrantzia edo interes berezia duten edo izan dezaketen inpaktukate batzuen inguruan: Olatuen eta itsasmailaren igoeraren inpaktua hiri-ingurunean; ibai-uholdeen inpaktua

hiri-ingurunean; euri-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean; bero-boladen inpaktua gizakiaren osasunean; eta tenperaturen igoeraren inpaktua biodibertsitatean.

Tratamendu espazial eta estatistikoko prozesu konplexuak erabili dira, datuak eraldatzeko eta tokiko adierazle erabilgarri sorta batera egokitzeko. Hain zuzen ere, aipatutako bost inpaktu-kateetarako, 65 adierazle ezarri dira guztira; horietatik 10 esposizio-adierazleak dira, 35 sentikortasun-adierazleak, eta 20 dira erantzuteko edo egokitzeko gaitasunari dagozkion adierazleak.

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren diagnostikoa egiteko, unitate txikia hartu da analisirako unitatetzat, auzoa baino espazio-xehetasun handiagoko lurralde-entitatea. Guztira, 108 analisi-unitatek osatu dute diagnostiko hau, eta adierazleak erabili dira unitate bakoitzerako.

